

ARRASATE

P R E S S U

1997ko
ekainak 6
366. zenb.

Zigorrolako
Egi Handni eta
Bedoñako
Artasian
txakolina
egiten dute.
Biak gaur arte
lortutako
emaitza eta
salmentekin
pozik daude
eta hemendik
aurrera bide
beretik
jarritzeko
asmoa azaldu
dute,
kalitateari
kantitateari
baino garrantzi
gehiago
emanez.

Bertako txakolina



Udako ikastaroak eta errekuperazio ikastaroak

ALEMANA • INGELESA • FRANTSESA

Eta gainera gure **Mediateka** zabalik izango duzu, Multimedia materiala, softwarea, eta abar. **DOHAINIK.**

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tel.: 71 20 55

Olakua, 14
OÑATI
Tel.: 71 60 00



LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena **ETXEMOBEL**en.
Batetik, kalitate eta diseinurik
handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,
merkeenak.
**BENETAN
HARRIGARRIA!**

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 8

Itsasgora, itsasbehera, galerna eta gu

Mikel Laboak esan didanez etorkizuna gazteen esku dago. Baina guk gazteok, Laboak esandakoa sinisten ahal dugu? Baietz esan beharko genuke guztiok, eta bakoitzak ahal duen neurrian mugitzen hasi.



Iban del Campo

burua egoera berritan eta pertsona berriekin harremanetan jarri beharko genuke gehiagotan, eta erosotasuna alde batera utzi.

Adibidez, gazteondako mugimendu zailenatariko bat: etxetik alde, gurasoak bakean utzi eta gure bizitza asmatu. Badirudi, gaur egun erabaki hau gurasoek hartu beharko luketela. Eta

baterean hartuko balute? Nola moldatu, norantz abiatu?

Irudi bat datorkit nire burmuinetik... nire gurasoek esku bakoitzetik zintzilik naukate itsas ertzean, hondartz kilometriko bateko edozein albotan. Askatu naute eta olatuak itsas ertzean haserre ari dira gora eta behera. Hemen-dik aurrera nire bizitza nire mugimenduen menpe dago. Alde batean itsas zabala edo nire hondora-

mena, bestean kostaldea, lurra; nire salbamena. Baina itsas ertzean egoera ez da erosoegia. Noiz behinka olatuak (erreztasunak) kostalderantz gerturatzeke, eta segituan olatu berberen itsasoratzea (zailtasunak). Zein izango da nire olatua?

Nola ez, gure olatua hartzeko igerian jakin beharko dugu; eta igerian ez jakitea ez da aitzakirik bizitza honetan. Zeuen gurasoek edo ez dakit nork, itsas ertzean ez bada, autopista baten erdian askatuko zaituzte; eta bertan azkar mugitzen ez bazara autoak zure gainetik pasatuko dira.

Badakit ez naizena pertsona aproposa guzti hau eskatzeko, baina itsas ertzean edo autopista erdian bazaude, adi eta mugi! Hala ere, inguruan ni gaizki ikusten banauzue, eskua luzatu mesedez. Eta gogoratu: inoiz zure bizitzan minutu bat borrokatu gabe pasa baduzu, gezurra bizi izan duzu; eta gainera sinistu baduzu, ez zarela existitzen seinale izan liteke... ■

Norantzako mugimendua norberak asmatu beharko du, eta bide bat aurkitzerakoan zuzen eta gogor jarraitu, atzera begiratu gabe. Tamalez gure bide hori aurkitzeko egin behar ditugun mugimenduak ez daude guztiz gure esku. Argi ibili behar, bestela zure mugimendu ahula ez da inora helduko.

Baina gutxienez, saiatzerakoan asko ikasten da eta gazte izateko esperientzia handia behar da. Esperientzia hau izateko, agian gure

“Gure olatua hartzeko igerian jakin beharko dugu; eta igerian ez jakitea ez da aitzakirik bizitza honetan”



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-do Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubiriaga, Maitel Egués, Marian Porcel. **Publikatzailea:** Kaitiñ Altende, Nerea Zallo (Tel.: 77 09 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Goco Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Altende, Besalde M. E., Karmelo Unbarren, Fidel Berebizbar, Bixente Pogoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Maitel Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Virginia Urkioa, Jabi Luengo, Maitel Barneña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Behar-do Kortabarría.



Arrasateko Udalerria laguntzaile



Gipuzkoako Foru Aldundia laguntzaile



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila laguntzaile

366. zenbaki honetan

1997ko ekainaren 6an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Ikusi eta entzun	33
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan	20/22	Foto zaharra	34

Ikuspegia

Iban del Campo 3

Euren ikuspuntutik

Jose Jaime Bengoa 8

Aurrez aurre

Aitor Orobengoa 24/25

Kulturaren txokoa

Celia Mendizabal 26

Hogeita hamar galderatan

Arantxa Mendarozketa..... 30

Asteko gaia

Txakolina:

Arrasateko kalitate labelarekin..... 17/19



Arrasateko txakolinari buruz zerbait gehiago jakiteko Bedoñako Artzubiaga eta Zigorrolako Egi Handi baserrietara jo dugu. Kataide eta Otxia txakolinaren egileak dira.

6

ostirala

■ ZINEA

El retrato de una dama. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ LABURMETRAIA MONTERRONEN

4. Galeriatik laburmetraia-aren proiektzioa arratsaldeko 7.30etan Monterronen.

■ PIANO KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko areto nagusian arratsaldeko 6.45etan.

■ ZINEA

Criaturas feroces. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ KARMEN ZENDOKIZEN ALDEKO MEZA

San Andresko elizan Ama Karmen Zendokizen aldeko meza arratsaldeko 7etan.

■ AITA MENNIN KULTUR ASTEA

Zirkoa gaisoentzat. 4.30etan areto nagusian

■ ROCK-A GAZTETXEAN

Kataluniako Ktulu taldea eta Zumarragako Gorroto gaueko 10etan. Antolatzaileak Gaztetxea eta Musakolako Gazte Txokoa. Sarrera: 500 pta.

8

igandea

■ ZINEA

Criaturas feroces. Alai zinema 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Bergara, Beasain, Itsasondo, Tolosa, Nuarbe, Azkoitia eta Arrasate, 120 km. Irteera goizeko 8etan.

■ IKARUS TALDEAREN KONTZENTRAZIOA

Ikarus parapente eta delta hegoa taldeak kontzentrazio antolatu du. Goizeko 11 etatik Kurtzebarritik egingo dute salto. Ondoren bazkaria.

■ ATZERATUEN EGUNA

12.30etan SUCDeke lokalean elkartu. Ordubatean kalejira trikitixa eta pailazoekin. 2.30etan bazkaria Alkartun. 5etan jaialdia Monterronen eta sari banaketa. Eguraldi txarra eginez gero, jaialdia Alkartun.

■ BIOLONTXELO KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko areto nagusian eguerdiko 11.30etan.

10

asteartea

■ ZINEA

Criaturas feroces. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ITURBIDE EGOITZAREN UDAKO EKINTZAK

Arratsaldeko 6etan San Viator ikastolako abesbatza eta bertsoariaren emanaldia.

11

asteazkena

■ ITURBIDE EGOITZAREN UDAKO EKINTZAK

Goizean Jose Mari Astigarraga parrokoaren hitzaldian. Arratsaldeko 6etan Arrasate Musikal eta Jurassic Band taldeen kontzertua areto nagusian

■ HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: Chiapas. Hizlariak: Luis Conde Arena eta Rodolfo Izal. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Komite Internazionalistek eta Mugarik gabeko Ingenieruek antolatuta.

9

astelehena

■ ZINEA

Criaturas feroces. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak, hainbat "lan-poltsa" osatu nahi ditu:

• Obra eta Mantenimenduko ofizialak:

- Arotzak
- Elektrikariak
- Galdaraginak
- Iturginak
- Igeltseroak

• Udaltzain laguntzailea

Oinarriak udaletxean jaso daitezke. Izenak emateko epea ekainaren 16an, ostirala, bukatuko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

12 osteguna

■ ZINEKLUBA

Singles. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Zuzendaria: Cameron Crowe. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

■ AITA MENNIN KULTUR ASTEA

Gaisoek osatutako abesbatzaren kontzertua arratsaldeko 5etan areto nagusian.

■ PINTURA ERAKUSKETA

Monterronen pintura ikastaroan dabilzan ikasle-en erakusketa Harresi aretoan ekainaren 11tik 19ra. Orduetgia: Egunero 6etatik 8ak arte. Larunbata eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte

■ AUZOLANDEGIAK MAULEKO EPERRA IKASTOLAN

Uztailean Southako Eperra ikastolari laguntzeko bidaia. Bi txanda izango dira: uztailearen 5tik 12ra eta 12tik 19ra. informazio gehiago AEDn edo Gazte Bulegoan.

■ XIX. ORIENTAZIO IBILALDIA

Murrukixo Mendizale Elkartek Euskal Mendizale Federazioaren 19. Orientazio ibilaldia antolatu du ekainaren 15erako. Probak goizeko 8.30etan eta 9.30etan hasiko dira. Bi ibilbide, bata luzea 15 kilometrokoa eta bestea 10 kilometrokoa. Parte hartzeko Federatu txartela behar da. Parte hartzeko izen ematea Aretxabaletako Murrukixon egin behar da.



IKARUS TALDEAREN KONTZENTRAZIOA

Ikarus taldeak kontzentrazio antolatu du domekarako. Euria egiten badu eta ipar haizea badago Kurtzebarritik egingo dute salto Urkuluko urtegi inguruan lurra hartzeko. Hegohaizearekin eta euri barik Tellamendira edo Udalatxera joango dira. Horrez gain, baliteke aditu batzuk etortzea parapentarekin hainbat ariketa egiteko airean. Ondoren parte hartzaileek bazkaria izango dute.

VE ECUADOR

ECUADOR bidaiak-en eskutik **Port Aventura**, **Eurodisney** eta **Disneyword**-era joan zaitezke!

**KVKARATXA
MOTEL**

Ekainak 12, FINALAK
jokatuko dira zuzenean **ATBn**
gaueko **9.30etan!**
Animo! Saria ez da motela!

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 6**
 • Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.
 • Gauez: Puy. Bergara.
- Larunbata 7**
 • Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
 • Gauez: Cuellar. Bergara.
- Igandea 8**
 • Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina.
 • Gauez: Cuellar. Bergara.
- Astelehena 9**
 • Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
 • Gauez: Estella. Bergara.
- Astearte 10**
 • Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
 • Gauez: Mozos. Bergara.
- Asteazkena 11**
 • Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
 • Gauez: Camacho. Bergara.
- Osteguna 12**
 • Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
 • Gauez: Puy. Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
 Igualarioria . . . 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) . . . 79 39 00
 (emakumeak) . . . 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
 Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
 • Espezialitateak . . . 77 05 78
 . . . 77 12 64
 Oñati . . . 78 08 52
 Eskoriatza . . . 79 98 58
 Aretxabaleta . . . 79 74 58
 Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziazki . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati . . . 78 04 11
 Bergara . . . 76 14 69
 Arrasate . . . 79 14 39
 Aretxabaleta . . . 79 10 52
 Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
 Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea . . . 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62
 Gasa . . . 900 40 05 23
 . . . 79 78 44
 . . . 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak . . . 79 12 22
 PESA . . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
 Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
 KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterongo liburutegia**
 Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia . . . 79 58 77

GRUAS SAN PRUDENCIOREN ZERBITZU TXARRA

Gutun honen bidez aurtengo apirilaren 27an arratsaldeko 4.15etan gertatutako zerbaite utzi nahi dut agerian jendearen aurrean. Egun batzuk pasatzen utzi ditut, apur bat baretzeko nire haserrea eta gertatu zena azaltzerakoan ahalik eta objektiboena izateko.

Bergararik Mondragoera gindoazen, emaztea eta biok eta 4 hilabeteko semetxoak, eta bihurgune batean auto bat gure karrilera sartu zen, gure autoa txatarretarako utziz eta geu zaurituta eta kolpez bete-ta.

Gidari batek abisu eman eta gero, Gurutze Gorrikoak etorri eta emaztea eta semetxoak ospitalera eraman zituzten. Gero Ertzaintza etorri zen, eta grua bat deitu zuen gure autoa eraman zezan. Gruas San Prudencio enpresako ibilgailu bat etorri zen, Oñati-Bergarako, eta orduan hasi zen istripuaren okerrera.

Ni minez nengoen (azkenean, kolpeez gain garondoko zaintiratua nuela esan zidaten) eta familiagatik oso arduratuta. Gruan nindoala, gidariari galdetu nion noiz pasa gintezkeen autoa utziko zuen tailerretik gure gauzak jasotzeko, Iruñeara joan beharra genuen eta, gaur egun bizi garen tokira. Erantzun zidan nire zain egon beharra bazeukan berak dirua galtzen zuela.

Ospitalara eraman ahal ninduen bota nion (kilometro eskasera pasatzen ginen) neure familiarekin bildu, nola zeuden ikusi eta neuk ere sendagileen laguntza jasotzeko (gaizki nengoen). Erantzun zidan buelta handia eman beharra zuela (kilometro batera geunden!) eta dirua galtzen zuela.

Portaera ikusita (ez dut ezer esan nahi bere hitz eta jarrera zatarrak), eta gaizki nengoen arren, Mondragoen Ertzaintza dagoen tokian gelarazi nuen eta taxi baten sartu nintzen.

Autoaren asegurokoekin harremanetan jarri ginen, eta esan zigun grua hura bera zela guri zegokiguna. Asegurokoek grua zeramanari deitu zion esanez geure gauzak jasotzera joango ginela, eta euren bila joan ginenean, 7ak aldera, ez zegoen inor.

Hori da gertatutakoa. Saiatu naiz gauzak ahalik eta modurik baretuenean agertzen, baina nahi dut jendeak jakin dezala nolakoa izan zen grua gidatzen zuenaren portaera (esan zigutenez ez ginen zerbitzuaz kezkatzen ginen lehenak) uste dudalako hori ez dela zerbitzua emateko modua eta ez dudalako nahi beste inori gertatzerik horrelako gauzarik.

Eskerrak Gurutze Gorriari, Ertzantzari eta Arrasateko Ertzantzari emandako laguntza, horrelako egoeretan sekula baino gehiago estimatzen dira eta.

Mikel Jauregi

GUZTIONTZAT ASTEBURU DESBERDINA

Bada aukera, ingurune zoragarri batean, Arrasate hurbil, igeri, pasiau, hainbat kirol egin, kerizpean lasai etzin...

Paradisu honetan, aurtun Arrasateko haur eta gazte txoek udalekuak igaroko dituzte uztailean eta irailean.

Ordurako, etxe eta inguruak txukundu behar dira eta hauxe da gure gonbidapena, bedarra moztu, eskulanak, astolanak, garbiketak... baina guzti hauek giro paregabean, umore onean, lagun giro berrietan, adin mugarik gabe, sexu desberdintasunik gabe, bete behar bakarrarekin: lana umorez egiteko gogoak.

Ozaetan dagoen Otaza baserriari udarako itxuraketa bat eman behar zaio eta zure kolaborazioa eskergarria litzateke.

Proba ezazue! galdetu 95eko udaberria bertan igarozutenei eta seguru eurekin batera aisialdi aukera berri bat bizitzeko gogoak izango duzuela, denetarako astia egoten baita. Deitu 77 12 28 telefono zenbakira zerbaite gehiago jakin gura izanez gero.

AED eta Txatsxilipurdi

Memesa
79 42 22

UGARAN
jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Lore
Lurrindegia
 Olarte kalea, 10 • ARRASATE
 Tel.: 79 52 50

Bidaltzen dituzu umeak udalekuetara?



Nekane Orobengoa
Langilea
(40 urte)

Ez, auzoan bertan ere ondo pasatzen du lagunekin, eta uste dut guretako erosoagoa dela bertan ibiltzea.



Rebeka Etxeberria
Langilea
(35 urte)

Ez, neu goizez lanean egotean naiz eta gizona etxean, umea berarekin egoten da. Txikia ere bada, eta berari galde-tu diot eta ez du nahi.



Izaskun Rekondo
Etxekoandrea
(37 urte)

Bai, hango giroa apur bat ezagutzeko, eta beste lagun-txo batzurekin ere egoteko.



Andoni Arregi
Langilea
(44 urte)

Bai, bidaltzen dut Txatxilipurdira. Bera gustora gustora ibiltzen da eta oso ondo pasatzen du.



Eusebio Urien
Langilea
(41 urte)

Orain nagusitxoak dira joateko, baina lehen bidali izan ditut. Ondo pasatzen zuen udalekuetan, gustora, berak eskatzen zidan joatea.



Juan Luis Agirreurrutia
Langilea
(33 urte)

Bai, zergatik ez? Eguna ederto pasatzen dute. Iaz joan zen eta aurten ere joateko kontua.



Iñaki Agirre
Langilea
(34 urte)

Bai, gustora joaten da eta. Aurten laugarren aldiz joango da.



Lina Ruiz
Etxekoandrea
(42 urte)

Ez, baina beste zeregin batzuk izaten dituelako, musika ikasten dabilenez ez du denborarik. Pentsatu izan dugu eramatea, baina ez du astirik.

M ARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

USTEAK USTE

Ume garaiak gogoan

Iturriotz kalean nindoan, eta han ikusitakoak ikaragarri poztu ninduen. Mutiko kuadrilla bat Abade Etxearen pareko eskaileretan. Fruta sartzeko erabiltzen diren plastikozko bi kaxa, beste jostailurik ez zeukaten, baina ederto asmatzen zuten. Lagun bat kaxa barruan sartu, beste batek bultza egin, eta han joaten ziren ziztu bizian eskaileretan behera, umeendako kotxe karroak pasatzeko arrapaletatik. Barraketan letxe, behera bi zihoazen bitartean, gainontzekoak iladan jarri eta urduri-urduri txanda zain.

Hirugarren munduaren gaineko dokumentaletan sarritan ikusten dira horrelako irudiak, edozer gauza jostailu bihurtzen duten umeenak. Ezinbestean jolasten dute horrela, baina hemengoek ez dute ezinbestekotasunaren baldintzarik. Horregatik poztu nintzen, nintendo, telebista, jolas elektronikoko eta abarren garaian oraindik umeak ume izaten segitzeko behar besteko irudimena dutelako. Neu ere ibilitakoa naiz fruta kaxetan, nahiz eta haiek egurrezkoak izan.

Beñardo Kortabarria



Haurren Egunak behar zaituzte

Jose Jaime Bengoa

Haurren Eguna ospatzeko garaia heldu da. Herri ezberdinetatik datozen haur dantzarietat eta bertako herritarrentzat, euskal kulturaren oinarrietan murgilduz, egun pasa eder bat eskaintzen diguna.

Urte osoan zehar haurrekin landutako euskal dantzak herriari aurkezteko aukera, bertan gauzatzen direlarik botatako izerdi guztien emaitzak.

Horretaz gain, bailarako dantza taldeekin ezezik, beste probintzietatik datozen taldeekin gozatzeko aukera paregabea aurkezten zaigu. Euskal Herriaren aberastasuna isladatzeko egokia den egun horietako bat.

Dena dela, hau ez da gutxi batzuren lanarekin lortzen. Ezinbestekoa da herriaren laguntza eta partaidetza. Jakin bada-

kigu urtetik urtera jendearen partaidetza gainbehera doala mota hauetako ekintza ezberdinetan, baina ziur gaudete, hala ere, hondartza egun batek baino gehiagok bete gaitzakela. Ez bait deritzogu inongo astakeriarik euskal dantza hauen mantentzea eta zabaltzea euskal kulturaren aldeko borroka bat dela esateari.

Denon lana da eta denok

“
Urtetik urtera
gainbehera doa jendearen
partaidetza mota
hauetako ekintzetan
”

lagundu eta parte hartu behar genuke mantentze eta sustertze lan horretan. Ez da beste munduko gauzarik behar, nahikoa litzateke adibidez, haurren batzuk etxera eramatea jatordua giro onean pasatzeko edo hori ez bada, gutxienez herrian geratzea eta kaletik pasadaxo bat egitea. Norberaren presentziak eta txaloak uste baino gehiagoko mesedea egiten dio helburu horri. Gainera parte hartzeko modua oso erraza da. Ekainaren 22ko Haurren Egunean etxera haurren bat eramanez gero, Hire liburudendara edo AEDra joatea eta bertan txarteltxo bat betetzea beste ezer ez da behar. Txartelean bazkari kontuak egiteko zenbat haur behar dituzun adierazi eta kitto! gainontzekoa antolakuntzakook egingo dugu.

Itxaropena ezin dugu inolaz galdu, hori dela eta ekintza horretarako herriaren erantzunaren aurrean baikor izan nahi genuke. Zure esku dago.

Jose Jaime Bengoa
Lore Gazteak taldeko partaidea da.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

 **MARKO-JARTZEAK**
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

astea bi hitzetan

■ **Neska gaztea hil**

Igandean, arratsaldeko sei-
rak aldera, Ainara Ormae-
txea Agirre gazte arrasate-
arra hil zen. Bañez Dokto-
rea kaleko dorrean bizi zen
Ainara, eta 15garren pisu-
tik erori eta hil egin zen. 19
urteko gaztearen aldeko hile-
ta elizkizunak astelehenean
egin ziren.

■ **MCCren balantzea**

Iazko urtea ona izan zen
MCCrendako, Korporazio-
aren presidentek adierazi
zuenetz joan den ostegune-
an. Urteko ihardueraren berri
emateko prentsaurrekoan
esan zen, enplegu berriak
sortzeko orduan aurrerapen
handiak egin direla. Gai
horri dagokionez, aurten
hegoaldean 1.200 lanpostu
berri sortzea aurreikusi dute-
la jakinarazi zuten.

Irabaziei dagokienez, zergak
ordaindu aurretik jasotako
irbaziek gora egin eta 35.887
milioi pezetara heldu ziren.
Cancelok esan zuenez, atze-
rriko merkatuen alde apus-
tu eginez lortu dute iraba-
zietz gora egitea.

■ **Presoen aldeko manifestazioa**

Ostiral iluntzean presoen
aldeko manifestazioa egin
zen Arrasaten.

Eskola Politeknikoan
maiatzean egin den gose
grebari bukaera emateko
egin zen manifestazioa.
Gose greban parte hartu
zutenek txandakako baraua-
ldia ondo joan zela adierazi
zuten.

■ **European erromeria**

Zapatu arratsalderako erro-
meria antolatuta zuten Lore

Gazteak-eko kideek, eta egu-
raldi euritsua izan arren erro-
meria ez zen bertan behera
geratu.

Hainbat ume eta gazte
Herriko Plazan bildu, eta
erromerietako dantzak dan-
tzatu zituzten.

■ **Euria barra-barra astebukaeran**

Azken 30 egunetan baino
euri gehiago bota zuen joan
den zapatu gauek igande-
ra arte. Tarte horretan metro
karratuko 106 litro ur jaso
ziren. Errekak azkar bete
ziren arren, ura ez zen ohi-
ko bideetatik irten.

Euritearen ondorioz
Arrasaten ez zen zorigai-
tzeko istripurik gertatu, bai-
na Uherkape inguruan arbo-
la bat jausi eta ondoan apar-
katuta zeuden bi auto harra-
patu zituen.



KOPLen BIDEZ SINADURAK BILTZEN

Pobrezia eta langabe-
ziaren aurka sinadurak
biltzen aritu zen ostiralean
eta zapatuan hainbat lagun.
Ostiral goizean azokan
izan ziren, eta jendearen
arreta erakartzeko koplari
bat kantuan aritu zen. Goiz
horretan 130 sinadura bildu
ziren, eta zapatuan 140
Musakolako kiroldegian.

“
Neurrira egindako
trajea

Arlo honetan Euskadiko
hirugarren ekimen pribatua
denaren alfabetoa espe-
rirentziadun errealitate
batean oinarritzen ei da
bultzatzaileen arabera.

Euren helburua goi mailako
irakaskuntzarako zubi bat
eraikitzea zen, ikasleek
bereko unibertsitate giroan
jarrai zitzaten ikasketak,
hau da, neurrira egindako
traje bat. Bultzatzaileek,
betidanik Arizmendiarieta-
ren gaineko erreferentzi bat
eginez Mondragon espe-
rirentziadun sortzaile
moduan, alde batera utzi
dituzte esperimenduak eta
zuzenean merkatuaren
eskaeretara jo dute: gaur
egungo eskakizunetara
egokituko diren profesiona-
lak behar ditugu. Beste
modu batera esanda, euren
ingeniaritza ikasketek, froga
modura, kooperatiba
osetzen duten enpresak
izango dituzte. Oso kontuan
hartzekoa etengabe
formakuntzaren behar
pentsatzen bada. Hori
izango da zentru berriaren
kartetariko bat, eurek
Euskal Herrian unibertsitate
mailan dagoen eskaintzaz
egiten duten ikerketan”.

Cirilo Davila
Deia
1997-6-5.

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE



Zarugalde, 46
Tel.Faxa: 79 29 93
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7
Tel.: 78 05 60
OÑATI

PEÑAKOBA



**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

Udalak harrobiei buruzko datuak gorde dituela uste du EKIk

Urtarrilean Eusko Jaurlaritzak Arrasateko harrobiei buruz bidali zuen txostenaren irakurketa egin du EKIk taldeak.

Astean emandako prentsaurrekoan esan zutenez, Udalak txosten horretan alde onak plazaratu eta datu kezagarriak ezkutatu ditu. Kanpanzarko harrobiari dagokionez, iharduera aurrera eramateko eta isurki likidoak ubide publikoetara isurtzeko baimenik ez duela esan zuten. EKIk arabera, datu horiekin behar bada itxi egin behar ko litzateke Kanpanzarko harrobia. Kobateren kasuan ere, errekadarra kutsatu duela eta isurkiak botatzeko baimenik ez duela azpimarratu zuten. Ekologi taldearen esanetan, harrobjek ez dute ezarritako dagoen legedia betetzen, eta horregatik, Udalak legedia betetzea exigitu beharko luke.

Arrasateko harrobien egoera salatzeaz gain, horiek eragiten dituzten kalteak



Gaur egun hiru kantera ari dira lanean Arrasaten.

gogoratu zituzten. EKIk azaldu zutenez harrobiek hautsa eta zarata eragiten dute, inpaktu bisual izugarria dakarte eta ondare arkeologikoak hondatzen dituzte.

Gaur egun Arrasaten hiru harrobi daude zabalik, beraz, lanean dabiltzanak: Kobate, Kanpanzar eta San Josepe. Beste hiru ere badira, baina horiek itxita daude.

“Ingurugiro Batzordea beharrezkoa da”

Udalak ingurugiroarekin lotuta dauden datuak ezkutatu dizkietela salatu zuten EKIk asteazkenean. Euren esanetan, trabak jarri izan dizkiete Udaletxean datuak eskatzera joan direnean.

Jarrera hori ikusita, ingurugiro gaietarako dagoen fiskalari gutun bat idatzi behar izan ziotela gogoratu zuten. Gutunean Arrasateko Udalaren jarrera salatzen zuten ekologistek.

EKIk ustez guzti hau ez litzateke gertatuko Ingurugiro Batzordea egongo balitz. Batzorde horrekin informazioa erraz lortuko luketela, eta ez luketela behin eta berriro prentsaren aurrera azaldu beharko esan zuten.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

San Juan de Dios eta Aita Menni 100 urteei begira

Datorren urteko ekainean beteko dituzte 100 urte Aita Menni eta San Juan de Dios ospitale psikiatrikoek, baina hain urtemuga seinalatua ospatzeko ekitaldiak atzo bertan hasi ziren Arantzazun. Atzo meza izan zen lehenik, eta ondoren ekintza ofiziala. Hemendik eta datorren urtera arte ekintza desberdinak egingo dira mendeurrena dela eta. Ekintza batzutan bi ospitaleek batera parte hartuko duten arren, bakar-ka ere antolatu dute ekintzarik, esaterako, hitzaldiak edo mintegiak. Era berean, ekintza batzuk Arrasaten egingo dira eta beste batzuk inguruko hirietan.

San Juan de Dios eta Aita Menni psikiatrikoak Benito Menni fraidearen ekimenez zabaldu ziren. Benito Menni San Juan de Dios ordene-ko fraidea zen. Hasieratik gizona kargua fraide-ek hartu zuten, eta mojek emakumezkoena.

Gaur egun 25 moja ari



Datorren urteko ekainean 100 urte beteko dituzte bi ospitaleek.

dira lanean Aita Mennin eta 12 fraide San Juan de Dios ospitalean. Hasiera batera

egin arren, gaur egun ospitaliak independenteak direla esan daiteke.

Auzoetako inbertsioak

Aurten auzoetan zein inbertsio egingo diren erabaki du Udalak. Ia 21 milioi gastatuko dira zeregin horretan.

Jarraian inbertsio garrantzitsu batzuk: Garagartzako auzo etxean pipiaren aurkako tratamendua egiteko 750.000 pta. zuzendu dira, eta 600.000 Bedoñako auzo etxe-ko teilatua berritzeko. Udalak milioi erdi jasoko du hobi septikoa konpontzeko.

San Andresen Popillora doan bidea konponduko da 610.000 pta.rekin, eta Bañez Doktorea kaleko aparkalekua hobetuko milioi batekin. Musakolan Antso Abarkako espaloia hobetuko da, eta horretarako 631.400 pta. zuzendu dira. Santamainan Makatzena parkeko argite-riari itxura berria emango diote 1.600.000 pta.rekin.

Uribarrin ere egingo da inbertsiorik; Arima Zuri plazan dauden hondoratzeak konponduko dira, horretarako 2.744.560 pta. utziz. Uribarri baserri auzoan, bestalde, aparkaleku bat egin asmo da milioi bat zetarekin.



IRAKASLE ESKOLA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik

• MAGISTERITZA

Espezialitateak:

- Haur hezkuntza
- Hezkuntza berezia
- Atzerriko hizkuntza: ingelesa

• HUMANITATEAK-ENPRESA Lizentziatura

Lizentziatura honek profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakundeen kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erantzuteko prestatuak.

INFORMAZIOA:

IRAKASLE ESKOLA • Tel.: 71 41 57 • 20.540 ESKORIATZA

Auzolandegiak Mauleko Eperra Ikastolan

Oporretan lan eginez eta ondo pasatuz lagun iezaiozu Ikastolari!

Noiz

- 1. txanda: uztailak 5etik 12ra
- 2. txanda: uztailaren 12tik 19ra

Non

- Southako Eperra Ikastolan

Izenematea

- AEDn (Tel.: 77 12 28)
- Gazte Bulegoan (Tel.: 77 00 65)


*Goizez lan egin
eta arratsaldean
Iparaldean
ezagutu ezazu!*



Langairen datu basean 85 lagunen fitxak sartu ditu Arrasateko Udalak

Martxoaren erdialdetik Langairen zentro laguntzailea da Arrasateko Udala, eta ordutik 85 lagunen kurrikulumak bete eta Langairen datu basean sartu ditu.

Bataz beste egunero bi edo hiru lagunen fitxak betetzen dira Udaletxean; arrasatearrek batez ere, baina baita ingurukoak ere. Gehienbat dendari, administrari, etxeko laguntzaile, peoi, mekanikako operari edo enpresa gestioako postuetan lan egiteko prest azaldu dira bertara hurbildu direnak. Sexuari begiratuta, batez ere emakumezkoen fitxak bete dira eta formakuntzaz gehienek maila bajuko ikasketak bazituzten ere,



Amaia Balda arduratzen da lana aurkitu nahi dutenen fitxak betetzeaz.

dexente izan dira tituludunak.


Lana eskatzen dutenen datuak jasotzeaz gain, langile bat kontratatu nahi dutenei ere zerbitzua eskaintzen die

Langaik, eta Udaletxera, zazpi enpresarik jo dute langile eskean. Metalgintzako bi peoi eta sukaldari, etxeko laguntzaile, erizain, dendari eta jos-

kin bana kontratatu dira Udaletxetik. Langile gehienak ere eskualdekoak izan dira.

Astean bestalde, martxora arte Deba Garaian bildutako datuak bidali ditu Langaik. Martxora arte 72 lanpostu eskaini ziren eskualdean, eta 833 lagunek jo zuten datu basean sartzeko fitxa betetzera.

Langai zerbitzua dohai- nekoa da, beraz, edozein zentrorra joateagatik ez dute ezer ordaindu behar lanpostua eskatu, edo langilea aurkitu nahi dutenek. Udaletxeak ezetik, Eskola Politeknikoak, Bastida akademiak eta Man- komunitateak zerbitzu bera eskaintzen dute.



Azken bultzadatxoa falta zaizula? Matrikula zaitez! Geurekin errezagoa da!


Ekainaren 30etik uztailaren 24ra arte
5 ordu goizez
Maila guztiak
(16 urtetik gorakoentzat)

Matrikulaldia
Ekainaren 2tik 13ra arte
Prezioa: 10.500 pta.
BEKA SISTEMA daukagu!



ARRASATEKO UDALA

Udal Euskaltegia ■



ARRASATE
KIROLAK

Zaldibar Lehiaketa Mondrasport-en

Astelehenetan ATBn izaten den Mondrasport kirol saioko Zaldibar txapelketan parte hartuz gero, Arrasate Kirolak-ek eskainitako kirol produktuen material sorta eskura dezakezu.

Animatu eta parte hartu. Bi pertsonendako lote bana zozketatu da asmatzaileen artean. Zu zeu izan zaitezke irabazlea.

Arrasate Kirolak-ek dituen kalitatezko eta moda modazko produktuak zuretako izango dira Zaldibar lehiaketako partaide bihurtzen bazara. Horretarako ondorengo txartela bete behar duzu. Zaldibar txapelketarako azkenetara heldu diren taldeak:

- **ORLANDO PIRATAS**
- **SORTU INFORMATIKA**
- **CERVECERIA LENIZ**
- **BETRAYER**



**Ez galdu hau guztia
eskuratzeke aukera!**

Zozketa ekainaren 16an (astelehena) Mondrasport saioan egingo da. Txartelak bidaltzeko azken eguna ekainak 13 (ostirala).

Txartelak ARKOra ekarri
(Otalora Lizentziatua, 31).



ZEINTZUK JOKATUKO DUTE FINALA?


TXAPELDUNAREN IZENA:

TXAPELDUN-ORDEAREN IZENA:

Izen-abizenak

Telefonoa:

TANBORRADARAKO GERTU




Hementxe ditugu haurren tanborradako protagonistak.

Jone Casadok Arrasateko bandera eramango du, Ander Arnaiz generala izango da, Ainhoa Elorzari ikurriña eramatea tokatu zaio, eta azkenik, Sheila Morenok SUDCe-ko bandera eramango du. Zorte on!

IDAZLEAREKIN ARGAZKIAN

Orain dela gutxi Yolanda Arrieta idazlea hurbildu zen Musakolako herri eskolara. Ikasleekin solasaldia eduki ostean, argazkia atera zuten guztiek. Batek daki, beharbada idazlearen ipuinen bateko protagonistak izango dira argazkiko neska-mutilak.



UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

MARIANO ANDRADE SIGANO

TAXIA

24 orduko zerbitzua
Hotelak / Aireportua /
Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tfno mobilak: (907) 75 23 85
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE



BIZIKLETAREKIN ETXERA

Hori bai suertea Itziarrek izan zuena. Kirol Proiektukoek antolatu zuten jai erraldoian parte hartu eta bizikleta bat irabazi zuen. Itziar ez zen Aramaiora egin zen bizikleta txan-gora joan, beharbada bizikletarik ez zuelako. Datorren urterako ez du aitzakiarik. Ez horixe!



Herrian gazteak badaude baina jubilatuek ere bai. Zapatuan 1.100 edadetuk parte hartu zuen Musakola-ko Kiroldegian egin zen jubilatuen egunean.

Bazkalostean dantzaldia izan zuten, derrigorrez mahai batzuk kendu edo txandaka dantzatu beharko zuten.

ZENBAT JUBILATU!

MECA
GRUA ZERBITZUA
Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000
24 orduko zerbitzua 365 egunetan

IZENAK

Ramon Ezeiza,
Josu Pereda
eta Mikel Arana

joan zen asteaz-
kenean Alaska-
ko Mckinley
mendiaren
tontorrera
heldu ziren.
Mckinley men-
diak 6.200 metro
ditu eta Ipar
amerikako
altuena eta
hotzena da.
Maiatzaren
19an joan ziren
eta tontorra
maiatzaren
28an lortu
zuten, uste
baino lehena-
go eguraldi
ona izan zutela-
ko. Hirurak dagoene-
ko etxean daude.



ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

Etxeko
mahatsekin
egindako
ardo txuria.



Artazubiaga
baserria.
Bedoña.
ARRASATE.

OTXIA TXAKOLINA

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

ASTURIASEKO DURO FELGUERAKO LANGILEEN ALDE

ARRASATEKO KIROLDEGIAN

EKAINAK 20
10 ETAN

LA POLLA DIXEBRA KOMA


LATZEN PI LT

egin


Egunkaria



ARRASATEKO UDALA



DURO
FELGUERA



Kanporatutako 40 langileetatik
4 langilek 170 egun bete dituzte
entzerraturik Oviedoko katedralean.

SARRERAK: Aurretik 1.000 pta. Bertan 1.200 pta.

ARRASATE: Jai Zale, Biona, CD Mania; ARETXABALETA: Arlutz, Gaztetxea;
ESKORIATZA: Mirentxu; BERGARA: Pol Pol; OÑATI: Guria; ANTZUOLA:
Gaztetxea; SORALUZE: Gaztelupe; GASTEIZ: Zuloa; DONOSTIA: Herria;
ORERETA: Landare, Mikelazulo; HERNANI: Jarki; IRUN: Hazia; EIBAR: Hilbera;
ELGOIBAR: Oizmendi; ERMUA: Jai.

Txakolina

Arrasateko kalitate labelarekin

Mahatsarekin hainbat edari egin daiteke, horietako bat txakolina da. Hitz hori entzuterakoan kostaldeko herriak datoz burura: Zumaia, Getaria, Donostia... bertan

beti egon izan da eta edari horrekiko zale-tasuna. Arrasaten berriz, txakolinaren gainean gutxi jakin da, ez delako ez egiteko ezta edateko ohiturarik egon. Hala ere,

orain dela 100 bat urte Angiozar eta Bergaran txakolina egiten zen. Hori jakinda pentsa daiteke sasoi hartan inguru honetan ez zela edari ezezaguna izango.


Txakolina ondo baino hobeto ezagutu Arrasateko Egi Handi eta Bedoñako Artazubiaga baserriko lagunek egiten dute. Baserri bietan duela urte batzuk hasi

ziren mahatsa landatzen txakolina egiteko. Hasieran proba bezala; orain saltzeko.


Egi Handi baserriko Jabier Arregi duela 8 urte hasi zen txakolina egiten edo hobeto

esanda, orduan landatu zituen lehen mahats orpoak. Gutxi-rekin hasi nahi bazuen ere, Getarira joan eta kopuru dexente sartzera animatu zuten. Hek-tarea erdiarekin hasi zen.

Felix Etxagibelen baserrian mahats sail txiki bat zeukaten eta hori aprobetxatuz ama eta biak hasi ziren orain 25 urte. "Euskal Herriko edari bat edukitzeagatik eta lehen-



Felix Etxagileek Otxia izeneko txakolina egiten du.



Egi Handi baserriko Kataide txakolinaren arduraduna Jabier Arregi da.

go ohitura berpizteko hasi ginen". Artazubiaga baserrian gaur egun 1.000 mahats landare inguru daude. Egi Handin hektarea erdi daukate. Baileran dagoen eguraldiarekin mahatsek ondo erantzungo zuten beldurrez zeuden txakolinzale hauek, baina lortutako emaitzak ikusita biak bat etorri dira Arrasaten txakolin ona egin daitekeela esatean.

NOLA EGIN TXAKOLINA

Txakolina edatea samurra den moduan, egiteak badu bere lana eta ardura. Lehenengo mahatsa landatu behar da. Arregik Hondarribi zuri motako mahatsa erabiltzen du. Etxagibelek Hondarribi zuri, etxean dutenarekin nahastuta. Landatzerakoan mahatsa ondo ipini behar da; estakekin eutsi eta alanbrea jarri. Kimaketa egitea ere ezinbestekoa mahatsa indartsu has dadin. Normalean mahatsondoak adar asko izaten ditu baina sustraiak indartzeko bitan edo bakarrean uzten da. Bestalde mahatsa parran egon edo ez desberdina izaten da. Esandakoaz gain, mahatsa loratu baino lehen eta ondoren sarri sarri sulfatatu eta ongarritu behar. Sulfatatzeke eta ongarritzeko produktu desberdinak daudenez, txakolin egile bakoitzak bere gustokoak erabiltzen ditu. Mahatsa lantzen dabilen momentuan ondo



Domi eta Felix, ama eta semea mahatsaren lanketa prozesua zaintzen ibili behar dira arreta handiz.

zaindu behar da gaitzik hartu ez dezan. Inguru honetan gano-raz sulfatatu behar da, dagoen hezetasunagatik.

Lan horiek guztiak Jabierrek eta Felixek egiten badi- tuzte ere, bakoitzak Errioxa-ko aditu baten laguntza izaten duela aitortu dute. Felixi mahatsaren landaketa proze- suan laguntzen dio adituak, Jabierrekin txakolina atera- tzeke ordura arte egoten da aholkuak ematen.

Mahatsa helduta dagoe- nean batu egin behar. Urrian, Pilarika egunean hasten dira batzen lagun kuadrila bildu- ta. Egi Handi eta Artazubia- ga baserrikoen berbetan batu eta prentsatu ahalik eta azka- rren egin behar da azidazioa ekiditzeko. Mahatsaren zapal- keta baserri bietan makinaz egiten da. Zikinkeria alde bate- ra eta mahatsa bestera. Horre- la kupel batean zikinkeria gel- ditzen da eta bestean muztioa.

Mu- ztio hori oraindik ez da guztiz garbia egoten, horre- tarako beste produktu batzuk erabiltzen dituzte. 24 ordutik 38 ordura edukitzen da mu- ztioa garbitzen. Denbora pasa- tuta zikina kentzeko beste barrika batera pasatzen da. Oso garrantzitsua da ahalik eta muztio garbiena lortzea.

Eta ondoren zer? Mu- ztioa depositoa dagoenean azu- karra alkohol bihurtzeko fer- mentazio prozesuari ematen

■ Artazubiaga baserriko *Otxia* txakolina ere partikularrei saltzen zaie beraz, gaitza eskaintza tabernetara zabaldu.

■ Egi Handi baserriko *Kataide* txakolina, Zumaia aldean badu eroslerik eta baina eta herritarren artean ere. Irati, Bengoa eta beste zenbait tabernatan saltzen da.

■ Tabernarietara esaten dutenez txakolina edaten bada ere, oraindik ez dago ondo Jendeak astebukaeratan eskatzen du eta bereziki uda aldean.



Jabier Arregik mahats hektarea erdi baino gehiago du Egi Handi baserrian.

zaio hasiera. Hor ere ezin hanka sartzerik egin. Irekiten 15 egunetik 20ra edukitzen da 16/20 gradu arteko tenperaturan. Tarte honetan tenperatura eta dentsitatea zaindu behar dira bereziki. Txakolin maisu bakoitzak jakina, bere trukoak izaten ditu, Jabierrek esatebaterako irekitze prozesua azkartzeko legamia botatzen dio.

Azken eginbeharra etorriko litzateke jarraian. Nor-

berak txakolina puntuan dagoela ikustean fermentazio prozesua gelditu, berriro depositotik aldatu zikinkeriak kentzeko eta hozten utzi. Abendua edo urtarrilera arte depositoa egoten da txakolina epeltzen eta otsailean enbotatzen dituzte.

TXAKOLINAREN NORTASUNA

Txakolin ona atera nahi izanez gero, aipatutako prozesu guztia arretaz jarraitu behar da. Eguraldiak ere nahi baino kalte gehiago egin diezaiokete txakolinari. Mahatsak ondo hazteko beroa eta euria behar du. Izotza, duen etsai txarrena. Udaberriko izotzekin dardarka egoten dira Egi Handi eta Artazubiaga baserrikoak.

Txakolin guztiak ere ez dira berdinak, mahatsaren arabera txakolin zuria, beltza edo gorria atera daiteke. Hirurak elaborazio prozesua antzerakoa duten arren, garbiena zuria

ei da. Jabierrek zuria egiten du eta ez dauka aldatzeko asmorik. "Hondarribi zuri mahatsarekin zuria egiten hasi nintzen eta horrela jarraitu behar dut. Nik neuk ez ditut mahatsak nahasten, biak parean heldu beharko lirarteke eta arazoren bat izanda txakolinan igeri daiteke". Felixek ere zuriaren alde egiten du apustua. "Ohituragatik egiten dut, eta bide batez garbiena iruditzen zaidalako". Txakolin aditu hauen berbetan gaur egun egiten den txakolinak azidatea galdu du zapore freskoagoa hartzeko. "Garraztasuna mahats desberdinak nahastuz edo bikarbonato mota bat botata kendu daiteke". Zer eta nola erabili maisu bakoitzak erabakitzen du.

NOIZ EDAN TXAKOLINA

Zenbat eta zaharragoa ardo hobea dela esaten bada, txakolinak urtekoa behar du izan. Edari freskoa izanda, bere ezaugarriak ez galtzeko urtean edatea gomendatzen da. Beste aholku bat ere eman zuen Jabierrek. "Botila zabalduz gero, dena edan behar da".

Kalitateari dagokionez pozik egoteko arrazoiak badituzte Arrasateko txakolin egileek. Hemengo txakolinak ez du kostaldean egiten denaren inbidiarik eta horren lekuko Artazubiaga baserrikoen gertatutakoa. "Getarira bazkari batera joan ginen, bertan txakolin aditu batzuk zeuden eta gureari hamar bat jarri zioten. Beraz edateko ohitura ez izateak ez du esan nahi kalitatea lortzen ez denik". Kalitate horrek bultzatuta gainera gero eta txakolin gehiago saltzen dute Arrasaten eta inguruan. Arregik aurten 5.000 botila egin eta guztiak saldu ditu. Kaxa 4.000 pezetatan saltzen du eta botila 333ean. Tabernariak eta kaleko jendea ditu erosle leialen. Felixek 1.000 litro egin eta honek ere dena saldu. Botila 500 pezetatan.

Bai Felixek eta baita Jabierrek ere txakolina egiten jarraitzeko asmoa dute. Artazubiagakoek euren helburua denbora pasatzea eta kalitatezko produktu bat egitea dela esaten dute. "Masa produkzioaren atzetik ez gabiltza. Kalitatea lortu nahi dugu jende baten kapritxo bat bete ahal izateko". Jabierrek beharbada mahats sail handiagoa duelako kalitatea lortzea du helburu nagusia, baina era berean ahalik eta toki gehienetara zabaltzea.

Artazubiaga eta Egi Handin egiten den txakolina das-tatu ondoren, primerakoa dela ziurta dezakegu. Gaur arte bezala jarraitzen badute, Arrasateko txakolinak ere etorkizun itxaropentsua izan dezake. ■

Itxaro Zubillaga

aindik ez dute

Arrasateko taberna

dute.

zabaldua txikiteoan.



Atleta

FERNANDO NOGALES

“Instalakuntza txarrak daude Arrasaten ganoraz entrenatzeko”

— Zenbat domina lortu dituzu?

— Guztira zazpi eta horietatik lau urrezkoak.

— Dominarik gogokoena?

— Iaz Euskadiko txapelketan lortu nuen. 1.000 metrotan parte hartu eta txapeldun atera nintzen

— Zein probetan hartzen duzu parte?

— 600 metrotan, 1000 metrotan eta 3.000 metrotan. Proba luzeak gusatzen zaizkit

— Entrenamenduak nolakoak izaten dira?

— Astean bost bider entrenatzen dut. Batzutan 6 edo 8 kilometro egiteko kanpora joaten naiz, Santa Agedaruntz edo ospitaleruntz. Gero Iturripen ere ibiltzen naiz. Lehen Elgoibarrera joaten nintzen, baina aurten ez, txapelketa asko ditut eta.

— Instalakuntza onak dituzue?

— Ez materiala bezala. Hobeak izango balira teoriarik Arrasateko mailan igerriko litzateke. Hala ere, Gipuzkoa eta Euskadi mailan goialdean gaude.

— Nola hasi zinen?

— 10 urterekin hasi nintzen. Aurrez pilotan ibili nintzen baina bi partiduko jokatu eta biak galdu nituenez

atletismora pasa nintzen.

— Helburua?

— Aurten ez dut helbururik baina datorren urterako Estatu txapelketara joatea gustatuko litzaidake.

— Zelako maila dago Arrasaten?

— Ona, baina jende gutxi dabil.

— Zure aurkari zuzenak?

— Gasteiz, Donostia eta Azpeitiko batzuk. Datorren urtean azpeitiarrak izango ditut aurkari zuzenak.

— Noiz arte atletismoan jarraitzeko asmoa?

— Ez dakit. Orain gustorara nabil eta kitto.

— Atleta gogokoena?


— Martin Fiz. Maratoilaria da eta niri ere hemendik urte batzutarako maratoilaria izatea gustatuko litzaidake. Orain 15 urte ditut beraz, bost bat urte barru maratoian parte hartu ahal izango dut.

— Zure ezaugarriak?

— Erresistentzia eta sufritzeko gaitasuna momentu txarretan.

— Hobetzeko duzuna?

— Indar gehiago hartzea. Esatebaterako 8 kilometroko kros batean eta mendian bada, askotan indar barik gelditzen naiz.



FUTBOLA Hiru baja oraingoz



Preferente mailako Mondrak uztailaren 15a arte atsedena izango du.

Egun horretan aurre-denboraldia prestatzen hasiko dira. Abuztuan beste 15 egun jai eta berriro lanari ekin behar irailan hasiko den denboraldian ahalik eta ondoen egoteko. Une honetan hiru baja seguru daude taldean: Aranburuzabala, Pildain eta Areitio. Itxura guztien arabera Otxoak jarraitu egingo du eta Zulueta etorkizuna ez da hain argi ikusten Mondran, nahiz eta oraindik jokalaririk erabakirik ez hartu. Aurre-denboraldian preferenteekin batera erregionalekoak arituko dira, eta horietatik batzuk goiko taldean gelditzeko aukera izango dute. Bestalde Mikel Luengo fitxatzeko asmoa zuen Mondrak. Baina Mikelek baieztatu duenez Aretxabaleto UDA taldean jarraituko du beste urte betez.


Emakume taldeak ere uztailaren 14a arte atsedena izango du. Uztailaren bi aste-tan entrenatu eta ondoren abuztuaren bukaera arte berriro jai. Denboraldia hasi baino hiru aste lehenago arte ez dira entrenatzen hasiko. Talde honetan baja bakarra Esti loiti da. Datorren urtean Mondrak bi emakume talde atera nahi dituenez inguruko hainbat jokalaririk probatzen ari dira.

SASKIBALOA Gauzak bere horretan




Saskibaloia taldea gidatzeko oraindik ez da inor aurkeztu. Orain arduradun moduan daudenez joko-

lari izandako eta diren batzurekin berba egin dute taldearen etorkizuna bideratzeko. Baina hauek ez dute erantzunkizunik hartu nahi. Kontua da kadeteek eta jubenilek datorren astean bukatuko dutela denboraldia eta hori gertatzean aurtengo zuzendaritza batzordeak bertan behera utziko duela saskibaloia. Tartean inor ez bada aurkezten herriko saskibaloia desagertu egingo litzateke. Datorren denboraldian Arrasatek bigarren mailako plaza du eta maila horretan herriko eta inguruko jendearekin ondo joka daiteke. Horrez gain gaur egun saskibaloia taldearen ekonomia orekatuta dagoela esan behar, beraz arduradun berriek arlo horretan ez lukete arazorik izango.



Enrike Kabiketa Estatuko txapeldun.



Anartz Azkarraga urrea disko jaurtiketan.

Enrike Kabiketa Estatuko txapeldun maratoian

RUGBYA Nobedaderik ez



Rugbylariek San Juanak arte entrenatzen jarraituko dute. Ekainaren

14an lagun arteko partidua izango da Garagartzako zelaian eta gero jai irailera arte. Arrasatek Euskal Ligan jarraituko du datorren denboraldian eta taldean ez da aldaketarik izango. Uztailearen 8an berriz, Patxi Gorosabelek omenaldia jasoko du Bera Bera taldearen eskutik.

ESKUBALOIA Aldaketa gutxi



Eskubaloia taldeak San Juanak arte entrenatzen jarraituko du.

Ondoren atsedena eta abuztuaren bukaera berriro kantxara zuzenduko dira aurre-denboraldia prestatzeko. Datorren urterako nobedade handiena sortu behar den emakume taldea.

Enrike Kabiketa beterrano mailan eta maratoian urrezko domina lortu zuen 2 ordu 34 minutu 12 segundurekin Bilbon. Denbora bikain horri esker 46 urteko arrasatearra Euskadiko eta Estatuko onena bihurtu da, Cesar Diezek Euskadiko laugarren postua eskuratuz.

Arrasate Atletiko Talde-

ko kadete, junior eta jubenilek Gasteizen izandako Euskadiko txapelketan hartu zuten parte. Arrasatek bost domina eskuratu zituen. Urrezkoak Oscar Gabilanek eta Anartz Azkarragak lortu zituzten. Disko jaurtiketan (1,5 Kg) Oscarrek 36,60 metro lortu zituen. Anartzek 1,75 kgko diskoarekin 33,32

metro. Zilarrezkoa Unai Sara-biak lortu zuen 100 metro-tan. Bere denbora 11" 29 ehuneneko. Brontzekoak bi izan ziren. Pertika jauzian 3,20 metroarekin Jonathan Perezek eta 6 kiloko pisu jaurtiketan Anartz Azkarragak. Ekainaren 14an Taldearen arteko Gipuzkoako txapelketa izango dute.

Eskoriatza-Arrasate krosa eurpean

Eguraldi euritsuaz egin zen Eskoriatza-Arrasate krosa domekan. Zortzi kilometro t'rdi egiteko lagun dextente elkartu zen. Helmuga

zeharkatzen azkarrena Manu Hurtado, 24 minutu eta 40 segunduko denboraz. Bigarrena Roberto Ruiz 3 segundura. Ema-

kumeetan lehena Angelica Manrique 28 minutu eta 43 segundurekin. Bigarrena Camila Bravo. Arrasatearren sailkapena:

Beterano gizonak

- 1 Jabier Mentxaka
- 2- Francisco Andres
- 3- Jose Luis Ugarte

Beterano emakumeak

- 1- Antonina Pacho
- 2- M. Carmen Garcia
- 3- M. Jose Gil

Senior mutilak

- 1- Angel Garcia
- 2- Oscar Boisa
- 3- Angel Moraleja

Junior mutilak

- 1- Oliver Fernandez
- 2- Iban Juez

Junior emakumeak

- 1- Naiara Castillo

Senior emakumeak

- 1- M. Jesus Garcia
- 2- Beatriz Gimenez



Zeren bila dabilta?

Baloia, lentillak, txingurraren bat... batek daki! baina gogoz ari dira zerbaiten bila. Galartza Kontenedoreak eta Orlando Piratasen arteko neurketan atera genuen irudia. Altxorra topatzeko orduan ez dakigu zein izan zen trebeena, baina ateko bidea aurkitzen ez dago zalantzarik: jaun eta jabe Orlando Piratas.

Laburrak

■ SORPRESA UGARI

Final laurdenez ezuste bat baino gehiago ekarri zuten. Irati STS 5 eta 3 galdu ondoren txapelketatik kanpo geratzen zen. Galartza Kontenedoreak beste horrenbeste. 6 eta 2 galdu zuten Orlando Piratasen kontra, 2 eta 0 irabazten egon baziren ere. Fosforos ere bidean geratu da eta beharbada sorpresa handiena Naranja Mekanikak emandakoa, Sortu informatika aurrean 2 eta 1 galdu zuten.

■ FINAL ERDIETAKO EPAILEAK

Zapatuan arratsaldeko 6etan final erdietako lehen partidua jokatu da eta epaitzeko ardura Haritzek izango du. Domekan eguerdiko 12etan bigarreana, epaile lanak Unaik beteko ditu. Finala ekainaren 14an jokatu da arratsaldeko 5etan Zaldibarraren, epailea Ramon.

■ FINALA ETA GAZTETXOAK

Zaldibarko finalean 14 urte beherako neska-mutilentzat ekintza berezia prestatu dute antolatzaileek. Zaldibarko porteria batean puntuazio desberdina jarriko da, gazteek toki zehatz batetik baloia jaurti beharko dute eta puntu gehien lortzen duenarentzat Athletic eta Real taldeetako baloiak banatuko dira. Baloiak jokalarien sinadura izango dute.



Hurrengoak

FINAL ERDIAK

Ekainak 7 Larunbata • Zaldibar

18.00 Sortu informatika - Cerv. Leintz

Ekainak 8, Igandea • Zaldibar

12.00 Betrayer - Orlando Piratas

Sailkapenak

Postua	Taldea
5.	Irati STS
6.	Naranja Mekanika
7.	Galartza Kontenedoreak
8.	Fosforos

Emaitzak

Galartza Kont. 3 - Orlando Piratas 6
Betrayer 5 - Irati STS 3
Fosforos 2 - Cerveceria Leintz 6
Naranja Mekanika 1 - Sortu Inform. 2

Uribe auzoko txapelketa

HURRENGO PARTIDUAK

11. ihardunaldia

Ekainak 7, Larunbata

Iturripe A

10.00	Nuevo taberna - Doble Cero
11.00	Blind - Munar fool
12.00	Ke oxtias - Borronck'n Roll P
13.00	Ford Publicop - DZV
14.00	Los Invalidos - Makai
15.00	Ojo avisore - komanado alpargat
16.00	Viboras - Ganbelas
17.00	Gallinero - Rotor de Bolbogrado
18.00	Leya - SGK
19.00	Equs BTR - Decima Victima
20.00	Piernodoiuna - DKB

Iturripe B

13.00	Lautherbrunne - auri
14.00	Lso Innombrables - Sobredosis de Txeira
15.00	Pajax de Amsterdam - Sambuka Porretas
16.00	Astoen Bila - Jako al Rey
17.00	Ale alee - Argi plastic
18.00	Mendizabal Ok - Molokai
19.00	666 - Hirei
20.00	Flujos Secos - Babajana Sexy

Ekainak 8, Igandea

Iturripe A

10.00	Manchester Fumaited - Mucho Morro
11.00	Dribling - Gerondis de Borregos
12.00	Elisabeth - Astonia
13.00	Balon rojo - Niva Vin

EMAITZAK

A taldea

Flujos Secos 12 - DZV 1
Astoen villa 0 - Babajana Sexy 5
Balon rojo 2 - Jako al rey 7
Pajax de Amsterdam 0 - Niva vin 10
Amueb. Zarautz 21 - Sambuka Por.1

B taldea

Elisabeth 2 - Argi Plastic 8
Blind 5 - Astonia 2
Gallinero 10 - Munar fool 2
Manchester Fu. 1 - Rotor de Bol. 14
Sartuixofuerte 3 - Mucho Morro 6

D taldea

Mendizabal okin 7 - Doble Cero 3
Piernodoiuna 4 - DKB 13
Lso Invalidos 1 - AT Barbate 0
Ainarexia 3 - Makai 6

E taldea

Viboras 5 - Borrock Roll Pr 1
Lautherbrunne 4 - Ganbelas 2
Dribling 15 - Auri 1
Bortxitxak 6 - Girondis de Borregos 3
La mosca Gao 1 - The Pepe Wolsvagen 0

F taldea

666 3 - Decima victima 4
Leya 4 - Hirei 2
Los Innombrables 7 - SGK 2
Ojo Avisore 1 - Sobredosis de Txeira 12
No hay mus 3 - Komando Alpargat 4

Nesken Futbito Txapelketa

Zapatu honetan final erdiak jokatu dira San Viator txikiko kantxan. Partiduak goizeko 11etan eta 12etan. Saillkapeneko lehen lau taldeek egin beharko dute lehia. Datorren asteburuan finalak.

Saillkapena

1- Matildax	9
2- Shaktale	6
3- Ieup	5
4- Izenbakuak	4
6- Joixon Bertan	2



ROTULOS

M2

ERROTULOAK

Tel./Faxa: 76 57 93

B E R G A R A

ZYMADIA

ANTIGVEDADES



Komodak, armairuak, kutxak,
mahaiak, erlojuak,... • Errestaurazioak
Garibai Auzoa, 12 • OÑATI • Tel.: 716075
(Oñati eta Zubillaga Auzoen artean)

AITOR OROBENGOA (ARKOKO LEHENDAKARI BERRIA)

“Erronka digitalari erant

ARKOKo lehendakari berria da Aitor Orobengoa. Eskola Politeknikoan mekanika ikasi eta gero, Frantzia eginezuen egonaldia ingeniartzatik hasi, ordenagailuak produktio prozesu batean zein eragin izan zezaketen sakonduz. Arrasatera itzuli eta Fagorren hasi zen lanean produktio ingeniari moduan, baina gero MCCra eraman zuten informatika sailera. Lan kontuak alde batera, herrian ezaguna da hainbat urtez zinegotzi kargua bete duelako EE alderdia ordezkatzuz.

- Oso gaztetatik politikan ezta?

- Politika berik izan dut gustoko. 17 urterekin EIA n sartu nintzen, EE bihurtu zen arte. Bertan beste 17 urte pasa nituen, 8 Arrasateko udaletxean. Orain ez daukat inolako bizitza politikorik, nahiz eta oso gertutik jarraitu.

- Besteekiko lana gustoko duzu?

- Scout taldean sartu nintzen garai batean eta han normaltzat ikusten genuen gizarte mugimenduetan sartzea, eta neurri batean hori odolean sartu zitzaigun. Ez zait gertatzen denaren ikusle hutsa izatea gustatzen, nahiago dut aktore izatea. Frantzia bada esatera bat filosofia hori nolabait azaltzen duena: “Bizitza laburregia da tristoraz jantzeko, ikusle hutsa izateko”. Uste dut parte hartuz bizitza ez dela hain motza, eta nahiz eta motza izan ez dela hain tristea izango.

- Zela ikusten dituzu Arrasateko Komunikabideak?

- Uste dut proiektu interesgarria dela. Gaztaroko oina-

rrizko pausuak eman ditu eta heldutasunera iritsi da. Heldutasun horretan, betiko moduan erronka produktu onak eta interesgarriak lortzea da, eta Arrasateko eta bailara oso-

ko bizitzan parte hartzea.

Etorkizunari begira beste erronka batzuk agertuko dira. Zehaztuz, parez pare erronka digitala dugu. Hemendik 5 urtera eskaintza zabalago izango dugu: jokoak, aisialdia



“Uste dut parte hartuz bizitza ez dela hain motza, eta nahiz eta motza izan ez dela hain tristea izango”

tzun beharko diogu”

teknologia digitalen bidez beste modu batera erabiltzeko aukera. Aurrekoarekin lotura duen beste gai bat ere badaugu. Hemendik oso denbora gutxira kable operadoreak agertuko dira, bailaretan produktua berriak aurkezteko gai izango direnak. Gaur egungo ARKOren proiektua gehienbat Arrasateri begira dago, baina etorkizunean, teknologia horrela aginduta, Arrasatetik bailara osora zabaldu beharreko proiektua izango dugu.

- Nola zehaztuko da guzti hori?

- Esparru bati lotutako kable operadoreek edo operadore digitaletan eskubidea izango dute 60.000 biztanlelik gorako esparruetan lehiaketa publikoetara aurkezteko. Jakina gure mankomunitateak badu 60.000 biztanlegotik gorako kopurua eta hemen posible izango litzateke kable operadore txiki bat

martxan jartzea.

- Ez dira handiak sartuko?

- Eskubidea daukate, baina udalek gaitasuna izango dute lehiaketa publiko hori bideratzeko. Maila honetan azpiegiturak oso garestiak dira, tuboa pasartzeko partikular batekin lan handia egin behar duelako. Udaletan, berriz, horrelako lan asko eginda dago, eta bertako udalek ahalmena dute azpiegitura hori kable operadore bati eskaintzeko. Horiendako interesgarriak dira ARKO bezalako proiektuak. Kable operadoreek derrigorrez azpiegiturak

erdi eginda dauden tokietara jo beharko dute hasierako inbertsioa ez dadin handiegia izan. Gertatzen dena da proiektuak falta zaizkiela. Hemen ur-zikinak jasotzeko depuradora sartu behar denez, azterketa egin beharko litzateke herri desberdinak nola lotu ikusteko.

- ARKOk erantzuko dio ?

- Neurri batean bai. Retelevision, Euskatel eta horrelakoek produktu standarrak izango dituzte, baina horrekin batera bertako albisteak emateko zerbitzua ere sortuko da eta euren dako guk badugu eskaintza.

- EHUko udako ikastarotan hitzaldiren bat eman behar duzu. Zer esanez?

- Teknologia berriek euskararengan zein eragin izan dezaketen azalduko dut. Nire ustez bi atal daude: alde batetik, teknologia berriak euskararentzat erronka berri bat dira eta aurre egin behar zaie; bestetik, euskarak hizkuntza minorizatua izanik ezin izango die teknologia horiei ingelesak edo gazteleniak emango dieten erantzun berdina eman ahal izango, informatika konpainia handiek ez dituztelako euskarara hutsen erabil daitezkeen produktuak aterako. Baina munduan bada hainbat hizkuntza minorizatu teknologia berrietan indartsu direnak, hebraiera adibidez, eta hauek prestatzen dabilta euren hizkuntzak toki bat izan dezan teknologia berrietan. Horien tresnak euskararentzat ere interesgarriak izan daitezkeela uste dut. ■

“Teknologia horrela aginduta, ARKOn Arrasatetik bailara osora zabaldu beharreko proiektua izango dugu eskuartean”

NON DAGO CURRO?

Ez dakigu non, baina eskuartean daukazun ARRASATE PRESSen ezkutatu da. Topatu eta kupoitxo bat.

Asmatzen duzuenon artean **2 pertsonendako TENERIFERA BIDAIA BAT** zozketatuko da HALCON BIDAIAKen eskutik.

Zozketa ATBn zuzenean emango da ekainaren 18an MUNDUARI BUELTAKA programan.



IZEN-ABIZENAK:
TELEFONOA:
NON DAGO CURRO? ZEIN ORRIALDETAN?

366. zenb.

Moztu kupoi hau eta ekarri edo bidali:
ARKO, Otorala Lizentziatua, 31
20.500 Arrasate



Kuadrilek igoko dute San Juanetako makala

Aurten lortuko ote dute altzatzea?

Makalaren igoera San Juan bezperan, Kuadrila Batzor-deak antolatu duen ekintza nagusia izango da aurten-go jaietan. Aspaldiko partez, kuadrilen batzorde hau berri-ero osatu da, herriko giroa berpizteko asmoz.

San Juanetako Batzordeak, jaiak bideratzeko modu berri baten falta somatzen zuen, batez ere herriko gazteen partaidetzari dago-kionez. Kuadrilen pasibitate orokorra astintzeko asmoz eratu da berriro Kuadrila Batzordea. Aste Santu aurretik egin ziren lehenengo bilerak eta herriko hamahiru kuadrila sartu ziren batzordean. Orduetik hona, ekintza ezberdinen antolaketan ibili dira lanean. Ekintza hauen asmoa, "herriko kuadrila naturalak jaietan inplikatzeko da. Eta honen helburu bakarra ondo pasatzea" Haritz Azkarragak, Kuadrila Batzordeko partaideak asaltzen duenez.

Oraindik lanean badabilz



laz ez zuten makala igotzea lortu.

ere, Kuadrila Batzordekoek zenbait ekintza programatu dituzte dagoeneko. Horietako garrantzitsuena San Juan bezperan egingo den makalaren igoera izango da. Haritzek dioenez, "lehenengo ekintza izango da eta eta espero dugu 200en bat lagun biltzea. Egun horretan kalimotxo eta gazta egongo da debalde, beraz giro ona sortzea espero dugu,

hurrengoko ekintzetan ere partaidetza egon dadin".

Aurrikusitako beste ekintzak jai guztietan burutuko dira. Entzietan aurretik, txokolatadak egingo dira bixamona pasatzeko. Kuadrilen arteko Olinpiada ere antolatu da, ekainaren 26rako, eta jaiak agurtzeko, kuadrilen arteko bitsa gerra egingo da.

Dena den, ez da hau behin

betirako programa. Kuadrila Batzordea nahi duenarentzat zabalik dago, bai kuadrila berriak onartzeko bai proposamen berriak entzuteko. Beraz, parte hartu nahi duen edozein gonbidatuta dago asteazkenero, arratsaldeko 7etan AEDko lokalean egiten diren bileretara. "Aukera paregabea da bakoitzak nahi dituen San Juanak izateko" esaten du Haritz Azkarragak. "Batzordean lan egiten dugunon gogoak ikusita, San Juanak bizirik daudela esan daiteke. Zentzu horretan baikorrak gara eta ziurtatuta dago ondo pasatuko dugula. Hori da azkenean, gure helburua".

Kuadrila Batzordekoentzat, arrakastatsua izango litzateke antolatutako ekintzetan herriko gazteen partaidetza lortzea. "Datorren urtera begira, ekintza berdinak mantenduko genituzke eta berriak antolatzeko aukera izango genuke" bukatzen du Azkarragak.

Barceló Bidaiak

SAN JUAN JAIK 97

PALMA DE MALLORCA

Ekainaren 20tik 27ra
Ostatu osoa
Irteera: Ekainaren 20an 20:45

BAHIA DE PALMA HOTELA *** 37.500
SUN CLUB PLAYA HOTELA *** 37.500

SALOU

	Autobusik gabe	Autobusa barne
Ekainaren 21etik 28ra		
CESAR AUGUSTUS HOTELA ***	25.200	30.300
AUGUSTUS LPAYA HOTELA ***	28.600	33.700
CALIFORNIA GARDENS HOT ***	23.300	28.400
SAN DIEGO HOTELA ***	25.000	30.100

Maalako Errabala, 33 behea • ARRASATE • Tel.: 79 70 11

CELIA MENDIZABAL

“Saria Arrasate Margo Taldeko maisu izandakoari eskaini nahi diot”

Celia Mendizabalek afizioz margotzen du. Bere kabuz ikasi du dakiena, irakaskuntzak uzten zion denbora librean. Almenen klaseak emateari orain dela urtebete utzi eta margolaritzari gogoz ekin zion. San Juanetako kartel lehiaketara *Dragoiaren agurra*, akrilikoz egindako koadroa bidali zuen, lehen saria eskuratuz.

-Zergatik aurkeztu zenuen lana San Juanetako lehiaketara?

Arrasate Margo Taldeko hiru lagun animatu ginelako. Azken momentuko erabakia izan zen, bapatekoa. Bide batez, Udalak antolatutako ekintzetan parte hartzea ondo iruditu zitzaigun, jasotako laguntza eskertzeko.

- Koadroaren sorrera ere, espontaneo izan zen?

Beno, astebete lehenago zirriborro bat egin eta taldekoei erakutsi nien euren iritzia jasotzeko. Ez nuen inolako konfidantzarik baina lagunei asko gustatu zitzairen, eta animoak eman zizkidaten.

- Zein da koadroaren intentzioa?

Santa Barbarako dragoia herriari begira dago, patxadaz. Dragoia herriko jaien begirale bezala imajinatu eta horrela asmatu nuen kartelaren lema *Dragoiaren agurra*. Niretzat, agur hori, bake eta poztasunezkoa da. Azken asmoa, herriari desio onak bidaltzea da.

- Margotzea ofizio edo afizio?

Erakusketa bat jartzeko adina koadro badut ere, ni afizionatua naiz. Hori bai, nire helburua ikastea eta gauzak ondo egitea da.

- Kartelgintzan ordenagailua asko



erabiltzen da...

Egia esan, beldurra ematen didate ordenagailuek. Dena den, oso hotzak iruditzen zaizkit ordenagailuz egindako lanak. Teknika dago tartean eta anima, sentimendua eta norberaren barrualdea falta dela pentsatzen dut. Perfektuak izan daitezke baina bakoitzaren izpiritua falta da. Ume baten margoa, ordenagailuz egindako obra bat baino pozgarriagoa da.

- Zer gustatzen zaizu margotzea?

Azken urteetan paisaia landu dut baina beti bertan figura bat edo gizakiren bat sartuz. Akaso, deformazio profesionala izan daiteke. Irakaskuntzan hainbeste urte ibili eta gero, pertsonak elementu premiazkoak dira niretzat.

- San Juanetako saria omenaldi bero bat egiteko aprobeztatu nahi duzu...

Bai. Saria, Abdon Juaristiri, hiru urtetan gure taldeko maisua izandakoari, eskaini nahi diot.

aste gazte

■ BEKAK

• Atzerrian espezializazio ikasketak egiteko bekak. Arloak: Euskal Autonomi Elkartearako interesgarriak diren gaiak. Epea: ekainak 12

• Joxemi Zumalabe Fundazioak, “Euskal Herriko herri mugimenduaren gida” burutu ahal izateko, beka baten deialdia egin du. Epea: ekainak 20.

■ UDARAN LAN BRIGADAK

• Askapenak antolatuta, Guatemala, Txiapas, Palestina, Mexiko, Ekuador, Kuba eta El Salvadorreko lan brigadak. Informazio gehiagorako: 55 23 65

■ LANA

• Sestaoko Udalak, begirale sokorristak behar ditu, uztailerako eta abuzturako. Epea: ekainak 10.

• Barakaldoko Udalak, kirol teknikari bat behar du. Epea: ekainak 16

• Euskal Herriko Unibertsitateak, zenbait plaza hornitzeko deialdia egin du: unibertsitateko katedradun bat, unibertsitateko 16 irakasle titular eta unibertsitate eskolako 19 irakasle titular, denak arlo ezberdinetan. Epea: ekainak 18.

• Iruñeako “Valle del Roncal” zentruak begirale bolondresak behar ditu minusbalio-tasun psikikoa duten pertsonentzat antolaturiko kanpamentuetan lan egiteko.

■ LEHIAKETAK

• Zumaiako Argazki Elkarteak antolaturiko IX. argazki lehiaketa, txuri beltzean eta gai librean. Epea: ekainak 23.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

“Ordenagailuz egindako obrei, anima, eta norberaren barrualdea falta zaizkie”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Larrea plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 26 34.
- Laredon apartamentua salgai. 4. solairuan eta igogailuaz. Prezioa: 6.500.000. Tel.: 76 44 34.
- Okendo kalean etxebizitza salgai. Tel.: 79 86 22.
- Erdialdean etxe handia salgai. Tel.: 79 42 13.

2. Erosi

- Deba Garaian 60 m²ko apartamentua erosi nuke. Dei egin gaez. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

- Peñiscolan pisua alokatzen da uztailean eta abuztuan. Tel.: 77 05 88.
- Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 52 80.
- Torrevejan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 m.ra. 2 gela, saloia eta jangela. Tel.: 77 03 85.

- Buhardila alokagai Zarautzen, San Juanetatik irailara arte. 6. solairua, igogailuaz. Hondartzatik gertu. Tel.: 79 54 93 eta 13 07 90.

- Zarautzen udan pisua alokatzen da. Alde-zaharrea kokatuta. Tel.: (945) 44 51 14.

- Peñiscolan pisua alokatzen da uztailean eta irailean. Tel.: 79 57 31.

- Udako hileetan Santa Polan (Alicante) bungalow-a eta Torrevejan apartamentua alokatzen dira. Hondartzatik eta herritik gertu. Tel.: 79 32 54 / 79 26 55.

4. Errentan hartzeko

- Arrasaten pisu bila nabil. Tel.: 79 96 10. Maritxu.
- Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan ordutan. Amaia.

- Hiru logeladun pisua behar dugu. Tel.: 28 03 16.

- Pisu handi bat behar da 97-98 ikasturterako. (94) 460 86 48. Lan ordutan.

- Pisu txiki bat alokatuko genuke San Andres edo Musakola inguruan. Irai-

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

ETXEBIZITZAK

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

ETXEBIZITZAK

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otorra Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

letik aurrera. Tel.: 79 54 46 Goizetan. Eider edo Errukane.

• Zarugalde kalean garaje itxia salgai. Tel.: 79 63 22.

5. Etxe konpartituak

• Konpartitzeko edo alokatzeko etxe bilanabil. Tel.: 79 99 82. Iñaki. Gaez.

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan. Irene.

• Datorren kurtsoan pisua konpartitu nahiko nuke Leioan. Tel.: 79 38 13. Leire.

• Lan finkoa duen mutilak logela bat behar du Arrasaten edo inguruetan. Ekaina-uztailetik aurrera. Tel.: 908-57 64 83.

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko 8etatik 9etara 77 04 69 telefonora. Margari.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldeetik gertu lokala salgai. 100 m². Bi solairu. Tel.: 79 07 24.

• Lokala saldu edo alokatu egiten da. Ura eta argindarrarekin. Tel.: 79 76 95.

• Komertzioa salgai. Bi jardunekin. Ondo kokatuta eta interesgarria. Prezioa konkretatzeko. Tel.: 77 13 91.

14. Errentan emateko

• Erdigunean lokal komertziala saldu edo errentan ematen da. Ferrerias kalean, 72 m². Tel.: 79 97 86.

• Erdiko kaleko 48. zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Aretxabaletan funtzionamenduan dagoen ileapaindegi mixtoa alokairuan, solariuz eta edertasun aretoaz. Ondo kokatuta, herri erdian. 60 m². Tel.: 77 12 70 / 79 94 39.

15. Errentan hartzeko

• Rock taldeak lokala alokatu eta konpartitu egingo luke. Tel.: 79 75 90. Oskar.

LANA

17. Eskaintzak

• Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

• Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 79 31 44. Gaez.

• Andra euskalduna arratsaldetan etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun emakume euskaldunak pertsona nagusiak zainduke lituzke. Margari. Tel.: 77 04 60.

• Neska gertu aterteak garbitu eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska euskaldunak dendaren baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskaldunak denda baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

18. Eskaerak

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: (945) 44 50 86.

• Esperientziadun pertsona bat behar da dekorazio denda baten lan egiteko. Tel.: 77 11 48. Denda ordue-tan.

• Gidatzeko karneta duen pertsona behar dugu ume txiki bat zaintzeko. Tel.: 58 50 40. Maite edo Jabi.

• Ordenadorez lan bat pasatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 79 93 62. Gaueko 8.30etatik aurrera.

• Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 61 82. Goizez edo gaez 10etatik aurrera.

• Fruta denda baten lan egiteko neska bat behar dugu. Tel.: 77 01 79.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Magisteritza daukan neska batek klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 10 21. Maite.

• OHoko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 69 41. Arantxa.

21. Eskaerak

• Uztailean, 3. BUPeko matematika klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 65 31. Maite.

• 2. LOGSEko latin eta filosofia klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 54 59.

• REMeko lehen kurtsoan dabilen ikasle batek uztaila eta abuztuan klase partikularrak behar ditu. Tel.: 79 27 48.

MOTORRA

23. Saldu

• Aprilia Clnver trial motorra salgai. 250 c.c. ia berria (1.300 km). Tel.: (945) 44 51 14.

• Kawasaki Vulkan motorra salgai. Tel.: 77 00 62. Arratsaldeko 3tatik aurrera.

• Errepideko aluminiozko bizikleta 55 neurriko salgai. Kuadroa Columby eta Campagnolo osagaiak. Prezioa: 45.000 pta. Tel.: 79 60 85.

• Adria 410 TD karabana salgai. Uda eta negurako guztiz jantzita dago. Tel.: 79 66 09.

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000 km. Egoera onean. Tel.: 79 96 56. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

DENETARIK

26. Saldu

• Idazmakina mahai eta guzti salgai. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak arte. Astelehenetan ezik.

• Errepideko bizikleta salgai. 55 tailakoa. Columbus Cortine kuadroa, Mavic gurgpilak eta Campagnolo piezak. 45.000 pta. Tel.: 79 60 81.

• Collie txakurra salgai. Tel.: 79 08 98 / 71 53 42. Joseba.

• Siberian Husky txakurkumeak sal-

gai. Pedigri bikaina eta prezio ezin-ohanean. Tel.: 79 59 85.

• Auto karabana salgai. 3,90 m. 5 lagunendako tokia. Merkea. Tel.: 79 91 21. Lanegunetan, gauez.

• Estreinatuta barik dagoen sofa-ohea salgai. 120 zm. Prezio ona. Tel.: 79 14 84.

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• IBM 425 SX ordenagailua prezio onean salgai. Tel.: 79 49 34.

• Erreformagatik solarium profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

27. Erosi

• Bigarren eskuko baxua erosiko nuke, ahal dela anplifikagailu eta guzti. Tel.: 79 96 31.

• Lau edo bost plazako karabana erosiko genuke. Tel.: 79 77 85.

29. Eman

• Komuneko osagarriak emateko

prest nago. Tel.: 76 44 34.

31. Galdu

• Erlojua galdu zitzaidan Musakolako jaietan. Zapatu arratsaldean. Radiant markakoa. Tel.: 79 69 69.

• Anbar motako zilarrezko pultsera galdu nuen Musakolako jaietan. Tel.: 79 81 16.

• Urrezko kataia galdu nuen Zaldibar inguruan. Amabirjina baten irudia dauka. Tel.: 77 13 30.

• Ostiralean betaurreko graduatu batzuk galdu nituen. Tel.: 79 28 44.

Maiatzaren 28an betaurrekoak galdu nituen. Metalikoak dira, gorriak. Tel.: 79 85 25.

• Urrezko belarritako bat galdu nuen Erdialdean. Perla zuritxo bat du. Eskertuko da. Tel.: 79 27 74.

• Asteazken goizean Portaloiko farmazian aterkina aldatu zidaten. Iluna da eta kolorezko orritxoekin. Nik bere aterkina daukat. Tel.: 77 05 65.

33. Denetarik

• Tarok kartak irakurtzen ditut. Tel.: 79 82 55.

NISSAN



Aldibi



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.A.



Hyundai

Musakola Autoak, S.A.



Chrysler

Co-Car, S.A.

Aldibi Autoak, S.A

Zigorrola, 1
20.500 ARRASATE
Tel.: 71 20 02
Faxa: 79 65 65

■ Arantxa Mendarozketa

ERGUIN HERRI ESKOLAKO ZUZENDARIA



Hamazortzi urte daramatza emakume honek irakaskuntzan. Gehienak, Erguingo Herri Eskolan eman ditu, azken laurak zuzendari lanak eginez. Hiru seme ditu, hirurak Erguin Eskolako ikasle.

1. Zein da zure horoskopoa?

Geminis.

2. Sinestuna zara? Gauza askotan

sinisten dut.

3. Animalia bihurtzekotan? Bat bera ez.

4. Zure akats bat/gauza on bat? Genioa, bere alde onak eta txarrak ditu.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Inkesta hau betetzeak.

6. Amets bat? Askok.

7. Zer kenduko zenuke mundutik?

Arrazakeria eta gizarteko desberdintasunak.

8. Gertakizun historiko bat? Garrantzitsu izan diren asko dago.

9. Nor miresten duzu? Inor ez.

10. Zeri diozu beldurra?

Gaisotasun larriari.

11. Zertaz damutzen zara? Inkesta hau egiteaz.

12. Negar egin duzun azken aldia? Ez naiz gogoratzen.

13. Zer falta zaio Arrasateri?

Haurrentzat parke egokiak.

14. Eta zuri? Denbora.

15. Lanbidez aldatzekotan?

Irakaskuntzan jarraituko nuke.

16. Arrasateko gustoko toki bat?

Garagartza.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Etxea margotzea.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Egunkaria eta El Mundo.

19. Gustoko janari bat? Barazkiak.

20. Liburu on bat? La casa de los espíritus.

21. Filmerik onena/txarrena? Secretos y mentiras/ Un pueblo llamado Dante's Peak.

22. Musika talderik onena/txarrena? Garai honetakoak ez ditut asko ezagutzen.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? Pelikulak eta dokumentalak/ Toma y daca.

24. Egin dizuten oparirik politena? Nire urtebetetzean egin zizkidatenak.

25. Denbora librean zertan pasatzen duzu? Bizikletan ibiltzea gustatzen zait.

26. Oporretarako toki bat? Azken urteetan Nojara joaten naiz.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Egunero bazkaria eta afaria pentsatzea.

28. Gomendio bat? Bat bera ere ez.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bitzita? Ez dakit.

30. 200 milioi irabaziz gero? Bidaia bat egitea.



**AGRICENTRO
OTXOA, S.L.
BANAKETAK**

- HAZIAK
- PENTSUAJ
- BURDINDEGIA
- ETXEKO ANIMALIEN ZAINKETARAKO PRODUKTUAK
- FITOSANITARIOAK
- ABELTZANTZARAKO INSTALAZIOAK

Musakola Pol. Ind., 2 • ARRASATE
Tel.: 79 17 79 / 79 86 70 • Faxe: 79 15 48



**AZKARATE MORRAS
PODOLOGIA KLINIKA**

Oin arazoak
Haur podologia
Kirol podologia
Biomekanika arazoak
Gari eta ondo tratamenduak
Plantila zuzentzaileak eta silikona ortesiak
Kiropodiak (gogortasunak, azazkalak, maskurrak)

ORDUA ALDEZ AURRETIK
Uribarri etorbidea, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 79 53 63

Ekaina: errittoa jaun eta jabe San Juan suaren edertasunaren inguruan

Udaldia hasten da ekainean. Udaren etorrerarekin batera San Juan suak, aspaldiko errittoa Euskal Herriko baserrietan eta herrietan. Hemen ezezik, munduan zehar hainbat tokitan modu beretsuan ematen zaio ongietorria uda sasoiari, suaren errittoaren bidez. Jaiaren esanahiarekin lotzen da San Juan sua herrietan; baserrietan, berriz, beste zentzu bat du. Bixente Pagoagak esaten duenaren arabera, Mondragoen San Juan himnoa bera kantatzen zen, baina beste herri batzuetako baserrietan San Juan suaren esanahi berezia adierazten duten bertsoak ere kantatzen ei ziren. San Juan suaren errekinak hartu eta lurrean zabaltzerakoan honelako koplak kantatzen ei ziren: "Garixe eta artoa gorde, sugeak eta bedar txarrak erre". Argi ikusten denez, lurrari egindako omenaldi modura hartzen zen sasoi batean San Juan suaren kontua.

Zorionez oraindik gogor



Gereizak batzen hasten dira baserrietan hile honetan.

dirau San Juan suaren errittoa herrietan zein baserrietan. San Juan bezperan pizten da, lehenengo baserri batean, gero beste batzuetan. "Ikuskizun polita izaten da. Horkoak piztu du, hango hark ere bai. Poliki poliki baserrietako aurrealdetan piztuz joaten dira su denak. Mendian egoten diren artzaiek ere ohitura berdina dute gau horretan eta han politagoa izaten da oraindik. Gauari nolabaiteko bizitasuna ematen dion ikuskizuna iza-

ten da, artzaia bakarrik ez dagoela erakusten duena". Gauaz gain, aintzina beste errittoa bat ere etortzen zen suaren ondotik. "Hurrengo goizean arantzak batu eta gurutzak egiten ziren, ate buruan jartzeko. Erramu zapatuan orain egiten den moduan".

Errittoa alde batera, ekainean ere lana izaten da baserrietan, jakina. Bedar lanak egoten dira, bedarra ebaki, lehortzen utzi eta beranduago jaso behar. Gaur segadoraz eta

traktoreaz egiten dira bedar lanak, baina urte asko ez dela segaz eta idiez egiten ziren, lagun askoren partaidetzaz gainera. Ikaragarri aldatu dira bai, baserriko lanak eta lana-besak azken urteotan.

Gainontzean bada beste hainbat lan: artoari bijorra egin, alpajearen haziak erein, ortuetan tomateei estakatxoak jarri, piperrak jorratu, porruak sartzeko lurra pres-tatu, marrubiak eta gerizak batzen hasi... "Orain alpajea bezala, lehen sekula bedarra ere ereiten zen, gero ganaduarendako jana egiteko, eba-ki eta ganaduari askara zuzenean eramateko. Hemen inguruan orain 20ren bat urte utzi zitzaion ganadujanak egiteari, baina kostaldean oraindik egiten da. Lehen bedar lanak bukatu arte, ez zen ganadurik ateratzen lurrera. Sasoi batean ekainean paatxa ere batzen zen, abuztuan arbiarekin batera ereiten zena. Hori ere ganaduari jaten emateko izaten zen".



**Parques
y Jardines**

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

■ **Horoskopoa**

- **Aries** Gerrikoa askotxo estutzen duzula esan daiteke.
- **Taurus** Bero egiten duenean ideiak lehortzen zaizkizu.
- **Gemini** Exajeratuegia zara. Ez da hainbesterako!
- **Cancer** Non izkututzen zara larunbatetan? Eta norekin?
- **Leo** Askotan gorritzen zara eta zuk ere ez dakizu zergatik.
- **Virgo** Zein ederra zauden azkenaldian. Kontuz ibili!
- **Libra** Batzuetan hobe ahoa itxi eta isilik egon.
- **Scorpio** Horrela jarraituz gero omenaldia egingo dizute herrian.
- **Sagitaris** Negar ugari bai, baina inor baino hobeto bizi zara.
- **Capricorn** Badirudi hiltzorian zaudela. Zelako garrasiak!
- **Aquarius** Batek daki egunotan zer pentsamendu duzun.
- **Piscis** Diskrezioa falta zaizu baina jarraitu galderak egiten.

■ **Gurutzegrama**

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13					
14							15
16					17	18	
19				20			

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1.Lumarik ez duena. 9. Adibide-moduan. 10. Alfabetoko hamaikagarren letraren izena. 11. Gipuzkoako udalerria, Oriá ertzean.12. Utopiari dagokiona.14. Afrikako ibai nagusia eta munduko luzeena. 16. Itxaroten, begira. 17. Aurreko urtea, iragan den azkena. 19. Zerbaitetarako aldi egokia. 20. Mendirako oinetakoa

Bertikalak 1. Ignacio, Mondragon Eskola Politeknikoko zuzendari orokorraren abizena. 2. Udako oporrak ohiko bizilekutik kanpo ematen dituen pertsona. 3. Musika-eskalako hirugarren nota. 4. Guaikuruen familiako herri amerindiar bateko kide. 5. Asteme nahiz behorra arreske egoteaz esaten da.6. Hurbiltzearen ekintza eta ondorioa. 7. Gorputzaren baino altuago den temperaturak eragiten digun sentazioa. 8. Gabezia, falta. 13. Zenbait landare nahiz animaliatik ateratzen den likidu koi-petsua. 15. Hosto zabal-zabalak dituen barazki arrunta. 18. Kanpo.

Horizontalak: 1. Lunagabe, 9. Adibidez, 10. Ka, 11. Irura, 12. Utopiko, 14. Nilo, 16. Zain, 17. Iaz, 19. Aro, 20. Bota.
Bertikalak: 1. Lakunza, 2. Udatar, 3. Mi, 4. Abipon, 5. Girt, 6. Aduzkio, 7. Bero, 8. Eza, 13. Olio, 15. Aza, 18. At.

LORAMENDI N



Kirolaz blai!




Pakistanera eta Txinara bidaian

Munduari Bueltaka saioan Pakistango eta Txinako irudiak izango dira ikusgai. Bi lurralde horietan zer ikusi zuten kontatuko dute

Aitor Artetxe eta Itziar Navarro ondarrutarrek.

Pakistaneko irudietan glaziarrak, mendiak eta bertakoei ateratako irudiak erakutsiko dira. Txinakoetan, berriz, basamortukoak eta azoka garrantzitsu batekoak.




Ktulu eta Gorroto burua astintzera

Ktulu talde kataluniarrari, eta Zumarragako Gorroto taldeari elkarrizketak egingo dizkiete *Buruari Astinduz* saioko kideek. Horrez gain, ekainaren 20an Arrasaten egingo den kontzerturako sarrerak banatuko dira.

Kukaratxa Moteleko Finala

Santa Kuka eguna dela aprobetxatuta, datorren ostegunean, ekainak 12, Kukaratxa Moteleko finala jokatuko da zuzenean. Bi talde finalistak, Ekuador Bidaiak eskainitako Port Aventura bidaia lortzeagatik lehiatuko dira. Etxetik jokatzen dutenen artean, Millar-Elkorok Walkmanak banatuko ditu.



■ ATBko asteko programazioa

6 Ostirala	9 Astelehena	10 Asteartea	11 Asteazkena	12 Osteguna	13 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Buruari Astinduz (Errep.)	13.30 Munduari Bueltaka (Errep.)	13.30 Kukaratxa Motel (Errep.)
21.30 Astebete. Astean jasotako albisteen errepasoa	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak	19.15 Kukaratxa Motel. (Finala)	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport	21.30 Buruari Astinduz. Ktulu taldeari elkarrizketa. Kontzerturako sarrerak zozketatuko dira.	21.00 Munduari Bueltaka. Pakistan eta Txina ezagutuko ditugu Itziar Navarro eta Aitor Artetxerekin.	20/20.30/21.00 Berriak	21.30 Astebete
				21.30 Kukaratxa Motel (Finala)	

BK
ARRASATE

FOTOKOPIAK: Z/B

FOTOKOPIAK: KOLOR

2.5 pta.tik aurrera

69 pta.tik aurrera

Olarte, 13 • ARRASATE • Tel.: 79 79 06



Joan den maiatzaren 30ean hil zen Karmen Zendokiz Ama, Arrasateko Asuncion Ikastetxean hainbat eta hainbat urtetan irakasle izandakoa. Madrilen iritsi zitzaion heriotza, 88 urte zituela eta azken 4 urteak oso gaisorik igaro ondo-

ren. Argazkian hor duzue, Arrasateko ikastetxetik Arantzazura egindako irteera batean hainbat ikasle eta irakasle kideekin batera. Goiko iladan dagoen emakumezkoa da bera.


Karmen Zendokiz Gernikan jaiotakoa zen, 1908. urteko uztailaren 16an. Arrasate-

ra 22 urterekin etorri zen eta pianoa irakasten hasi zen berehala. Era berean esan beharrekoa da Bilboko Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorian prestigio handia zuela eta ikastetxeko organo-jolea ere izan zela. Arrasateko makina bat belaunaldi pasa zen bere eskuetatik.

Urtea: 1950.

Argazkia: Arantza Alonso.

Informazioa: Arantza Alonso.

OPEL 

OPEL GAMA BERRIA.

Zatoz OPEL gama berria ezagutzera.

OPEL
SINTRA



OPEL
VECTRA
CARAVAN



Araba etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)
ARRASATE • Tel.: 79 05 86



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .. ☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

MASAIARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎79 29 95

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Errebuelta, 2 (Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

PODOLOGOAK

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎79 53 63

PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

REUMATOLOGIA


- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ☎79 72 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎79 44 22

sofa leku

a. eme... interiores



STOKKE



centro hogar muebles



grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92